



EDEBÉ SARIA
GAZTE LITERATURA

FRANKENSTEIN EFEKTUA

ELIA BARCELÓ

giltza

periskopioa

FRANKENSTEIN EFEKTUA

**EDEBÉ SARIA
GAZTE LITERATURA**

ELIA BARCELÓ

FRANKENSTEIN EFEKTUA

EDEBÉ SARIA
GAZTE LITERATURA



giltza

Lan honek Edebé Gazte Literatura Saria irabazi zuen, kide hauek osatutako epaimahaiak hala erabakita: Xavier Brines jauna, Paula Jarrín andrea, Rosa Navarro Durán andrea, Care Santos andrea eta Elena Valencia andrea.

Jatorrizkoaren izena: *El efecto Frankenstein*

© Elia Barceló, 2019

© Itzultzailea: Miren Agur Meabe

© Arg. Eusk: Giltza, 2020

Txorierri etorbidea, 46

48150 Sondika (Bizkaia)

www.edebe.com

Bezeroen arreta: 902 44 44 41

kontaktatu@edebe.net

Argitalpenen zuzendaria: Reina Duarte

Gazte Literaturako editorea: Elena Valencia

Bildumaren diseinua: Book & Look

Azaleko argazkia: Hadis Safari on Unsplash

Egilearen argazkia: Nina Eisterer

1. argitalpena, 2020ko otsaila

ISBN: 978-84-8378-534-8

Lege-gordailua: B. 23765-2019

Espanian inprimatua

Printed in Spain

EGS – Rosario, 2 – Bartzelona

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos (www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 45)).

Mary Shelley,
zientzia-fikzioaren eta izu-literaturaren aitzindariaren
eta orain 200 urte, 1818an,
argitara emandako «Frankenstein edo Prometeo modernoa»
nobela hilezinaren oroimenez.

0

Begiak ireki zituen argi-itzaletan. Laranja-koloreko argi indartsu bat marrak pintatzen ari zen horman, erdizka irekitako pertsiana zeharkatzean. Ez zekien non zegoen, eta une batez itotzear sentitu zen, ikara-ikaran, ez zuelako ezagutu ez logelako sabaia, ez inguruko ezer.

Berriz itxi zituen begiak. Batzuetan gertatzen ziren horrelakoak, eta segundo apur batzuetan dena lehen-goratu eta gauzak berez argitu ohi ziren. Berriro ireki zituen begiak, astiro, burmuinari martxan jartzeko eta bila zebilen erantzuna eskaintzeko aukera eman bezala. Ezer ez. Ez zekien non zegoen, ezta ere zergatik esnatu zen toki hartan ilunabarrean. Gehiegi edan ote zuen bezperan eta ikaskideren batek bere etxean geratzeko eskaini?

Itsumustuan agondu eta ohean eseri zen. Estura sentitzen zuen paparrean; izua ez bazen, bai oso antzeko sentipena. Ez zuen aurreko gaueko txintik gogoratzen. Ezer ez. Bere gogoaz zulo beltza zen, basamortua, erabateko hustasuna.

Ingurura begiratu zen, turdituta: orban zaharrez beteriko koltxoi nazkagarri batean etzanda zegoen —nahiago ez jakin orban haien jatorria—; gela, erortzeko zorian; hormak zartaturik; leihoak sitsak janda; kristala, han-hemen apurtuta, urteetan zehar

harriak jaurti izan balizkiote legez; lurra txintxorrez eta paperez beterik. Ia ezin zituen bereizi, argitasun laranjatua urrituz zihoalako eta itzalak pilatzen ari zirelako etxe hondatu hartako zokoetan.

Zer gertatu ote zitzaion han esnatzeko? Jipoitu-edo egin ote zuten? Lapur-bandaren batek eraso egin eta han botata utziko zuen hilda zegoelakoan?

Kontuz ukitu zuen burua. Min apur bat zeukan, baina buruko min arrunta zen: ez zirudien makadurarik zue-nik garezurrean. Alkandoraren mahukak tolestu zituen besoak aztertzeko eta, ilunpe urdinean, ez zuen ikusi ez odolik, ez urrakadarik, ez beltzunerik. Hanketan ere ez zeukan minik.

Paparrean ipini zituen esku-ahurrak eta, oihalaren azpian, josturatzar antzeko batzuk sumatu zituen hant-hemen. Hala ere, ez zuen ezer sentitu saka egitean, ez minik, ez erretasunik, ez inolako molestiarik. Agian beste arroparen bat zeukan azpitik, pasaratua edo hari lodiz konpondutakoa.

Alkandora kendu eta begiratzea pentsatu zuen, baina ia guztiz ilunduta zegoen, eta hotz. Beraz, handik atera eta etxera joatea erabaki zuen, eta behin bere gelan salbu egondakoan, kriseilua piztu, bainua hartzeko ura eskatu, erantzi eta gorputza zehatz miatzea.

Bere gelara itzuli. Bere etxera itzuli.

Non bizi zen?

Zulo beltza berriro.

Mihia pasatu zuen ezpain idorretatik, hortzetatik. Denak zituen, ez zegoen hutsunerik, eta lasaitua sentitu zuen. Masail garratzak haztatu zituen. Izango zen pare bat egun bizarra kendu gabe.

Ez zuen gogoratzen non bizi zen.

Etzker eskumuturrari oratu zion hatz erakuslearen eta hatz lodiaren artean, pultsu bila. Aztoratuta, oso, pentsatzekoa zenez. Atera egin behar zuen handik, nora joan jakin ez arren. Mugimendua behar zuen, zerbait egin, ez zoratzeko.

Zutitu eta gelatik irten zen, hornei haztamuka, itsu berriek egiten duten legez. Etxearen planoa ez zitzaion ezezaguna, baina ez zuen lortzen ezerekin lotzerik. Kontuz jaitsi zen eskaileretatik. Bere gorputzaren pisuarekin kirrinka egiten zuten zurezko maila haiek ez zioten konfiantza handirik pizten, baina ez zegoen beste modurik beheko solairura iristeko eta, handik, kanpoaldera.

Behinola sukaldea izandako gela zaharkitu bat zeharkatu, eta lortu zuen azkenean aire zabalera ateratzea. Haizetxoa, hotza izanda ere, bizkorgarria gertatu zitzaion. Gautzen ari zen, baina zeruak, mendealdean, bazeukan oraindik tindu laranja ederra, zain gorri biziz jantzia, eta kolore multzoa Danubion islatzen zen, juxtu ibaia apur bat mantsotzen zen tokian, etxe aurrean.

Musika eta solas txatalak, barreak-eta iristen zitzaizkion hurbil samarretik, jai baten oihartzunak edo. Burua goratu zuen kanpai-hotsa entzutean, eta izen bat azaldu zen bere gogoan: Andre Maria Ederraren katedrala.

Izen hura bere baitarako errepikatu, eta zerbait laxotu zitzaion barruan: elizari eta ibaiari izena ematen baldin bazekien, jakingo zuen, halaber, non zegoen. Memorian arakatzen jarraitzea baino ez zuen.

Eta beharbada, zortea izanez gero, bera nor zen jakitea ere lortuko zuen. Ezen oraindik bere buruari aitortu nahi izan ez ziona zera zen: ez zuela bere izena gogoratzen, ez zekiela nor zen bera.

1

Nora pauso luzean zihoan ibaiaren kale paraleloan, karnabaletako mozorroaren gona luze madarika-tuekin estropezuka. Hobe soineko erosoagoren bat jantzi izan balu, baina Sarak hemezortzigarren mendeko dama mozorro hura utzi zion, poltsatxo, ileorde eta guzti, eta berak amore eman zuen, nahiz eta beti mozorrotu banpira, sorgin edo antzera.

Ez zekien ideia ona zen ia-ia inor ezagutzen ez zuen jai hartara joatea, baina bazeramatzan hilabete batzuk Ingolstadtten eta, eskolak zirela, lehen testak zirela, erosten, jatekoa prestatzen eta dena bere kabuz egiten ohitu beharra zela, ez zuen lagun talderik egin. Horregatik, Sarak jaira gonbidatu eta, gainera, soinekoa ere mailegatu zionez, baiezkoa eman zion segituan. Amorragarriena zen ezin izan zela goizago joan, Marie zaindu behar izan zuelako ordu pare batez: gurasoek haurtzaindegiko bilera zeukaten, haurtxoa hasiko zenerako. Nora ez zen kapaz izan ezetz esateko, eta jai-tokiaren bila zebilen oraindik.

Momentu batean geratu zen, arnasa hartu eta telefonoko GPSari bistadizoa emateko. Ileordea egokitu zuen belarrien gainean eta, berriz martxan hastekotan zela, oihu etsi batek zur eta lur utzi zuen, alde guztietara begira, soinuaren sorburua kokatzeko.

—Lagunduuuu! —ari zen sokorruka emakume bat—. Lagunduuuu! Lagundu, mesedez! Nire iloba ito egingo da! Lagunduuu!

Gonak ia gerriraino altxatuta, Nora korrika hasi zen ustez emakumea zegoen tokirantz, eta segituan ikusi zuen, uretan belaunetaraino sartuta eta besoak luzatuta flotean zihoan irudi bati heldu nahi eta ezinik.

Zorionez, inguru hartan ur-lasterra ez zen hain indartsua. Norak ileorde zuria ri-ra kendu, begizta eta tximeleta eta enparauekin; soinekoa burutik atera, kremaire ireki ere egin gabe, eta dzanga egin zuen uretara, zeinen hotz egon zitekeen pentsatu gabe.

Izoztuta zegoen.

Berehalaxe irten eta edozerekin lehorteza izan zuen lehen bulkada. Baina neskatoaren eta amonaren garrasiek kinatu egin zuten, eta bera igerilari trebea zen.

Ur-lasterrari utzi zion eramaten, berak palada itzelak egin bitartean, neskatoarengandik gero eta hurbilago. Harrapatu zuen. Haurrak tximino kume baten antzera oratu zion eta hondora arrastatzeko zorian ipini zuen, ostikadaka zebilelako eta, besoekin indar eginda, lepoa ia itotzeraino estutu ziolako. Nora saiatu zen gorputzetik eusten, mugimenduak ez oztopatzeko gisan, baina jiratu zenean neskatoaren bizkarra bere bularraren kontra jartzeko, ibaian behera zetorren zerbaitek gogor jo eta banatu egin zituen. Adar bat jitoan, hala iruditu zitzaion.

Amorruz egin zuen igeri korrontearen erdigunearantz, eta lortu zuen haurraren anorakari heldu eta berarenganantz ekartzea, baina oraingoan ez zen ez ostikadarik, ez besorik lepoan kiribilka. Neskatoa konortea galduta zegoen, edo zerbait okerrago.

Une batez, uraren mende geratu zen Nora, besterik gabe, umea besoetan. Ura hain zegoen hotz, gorputz osoa sentitzen zuen lokarturik, sorgor. Kostatu egiten zitzaion igeri egitea, eta berotasuna burutik ihesi igaritzen zuen, ile busti gero eta hotzagotik.

Zubiaren parean, urak zutarri bat jotzen zuenez, gainetik pasatu zitzaien olatu bat, eta urpean murgildu ziren. Norak pentsatu zuen ez zuela lortuko, hura amaiera zela. Orduan, iluntasunetik sortutako beste beso batzuek flotatzen eta ertzeraino heltzen lagundu zioten, zama higigaitza aldean zuela.

Azkenean, lurra jo zutenean, lokatzetan etzan ziren, akituta, arnastetuka, baina arindurik eta pozik onik atera zirelako. Amona lasterka zetorren, esker ona malko artean murmurikatuz, eskuan telefonoa.

—Deitu anbulantziari! —esan zion Norak oihuka.

—Ondo dago? Tini ondo dago?

Farolak piztuta zeuden eta, haien argi zurixkan, Norak ikusi zuen neskaxoa geldi zegoela, begiak itxita, bizkarrez etzanda ur-ertzean abandonatutako panpina baten moduan. Hiru bat urte izango zituen.

Uretan lagundu zien mutila ere begira zegoen, atsekabetuta. Bien begiek topo egin zuten, emakumeak telefonoz baten bati helbidea eman eta gertatutakoa azaltzen zion bitartean.

Nora izan zen aurrena mugitzen. Neskaxoaren ondoan belaunikatu zen; alboz ipini zuen, irentsitako ura bota zezan; atzeraka jarri zion burua; ahoa ireki; eta atzamarra sartu zion, belarren bat ez zeukala segurtatzeko; sudurrean atximur egin, eta, ahoa neskaxoaren ahoaren kontra ipinita, arnasketa artifiziala egiteari ekin zion.

Bitartean, mutilak bere buruari galdetu zion ahapeka: «Baina zertan ari da? Zertan dabil? Umea hilda dago, ez dauka pulsturik. Ez dago zereginik».

Nora apartatu egin zen berriz arnasa hartzeko. Mutilaren pentsamendua ulertuta, masaje kardiakoari ekin zion. Hogeita hamar sakada, bi putzada, hogeita hamar sakada, bi putzada..., erritmo bizian, behin eta berriro, berriro, berriro, gelditzeke, zenbatzeari utzi gabe.

Handik minutu batzuetara, anbulantzia agertu zen. Ibaiertza argi birakariz eta sirena-hotsez bete zen.

—Bizirik dago? —ari zen galdezka amona—. Bizirik dago?

Erantzun nahirik bezala, neskatxoak begiak ireki zituen eta, eztulka, irentsitako ura bota zuen. Amona gainera joan zitzaion, baina besarkatu orduko, bi angarilarik haurra batu eta ibilgailuan sartu zuten. Amen batean alde egin zuten denek.

—Ber..., berpiztu egin da? —galdetu zuen mutilak, txundituta.

Norak burua astindu zuen. Gero, jaiki eta arropak utzitako aldera abiatu zen. Mutilak jarraitu egin zion. Eskerrak ez zuen osorik biluztu behar izan ezezagun haren aurrean, pentsatu zuen neskak: soineko mehearen azpitik *body* prakaluzea zeukan, hotzari aurre egiteko.

—Ez, motel, ez zegoen hilda —erantzun zion, mutilarentzat hori jakitea garrantzitsua zela igarrita—. Baina gutxiगतik, beste pixka bat utzi izan bagenu. Haur gaixoa! Nola bururatu ote zaio uretan sartzea, dagoen hotzarekin eta gaua gainean?

—Oso ausarta izan da berori —esan zion mutilak.

—Zu ere bai. —Burua jiratu zuen, harrিতuta mutilak

berorika hitz egin ziolako. Zer tipo mota arraroa zen hura? Berarekin bikotea osatzeko moduan jantzita zegoen: galtzak, galtzerdi zuriak eta alkandora mahu-kazabal parpailaduna. Jai berera gonbidatuta egongo zen agian—. Eta..., bide batez..., eskerrik asko —gehitu zuen—. Zugatik izan ez balitz, biok itota.

Mozorroa lurretik hartu eta, gorputza blai-blai zeukan arren, jantzi egin zuen Norak. Hotzak hilik zegoen, mutila legez. Mutila ere dardaraka ari zen, disimulatzen saiatzen bazen ere.

Zorionez, han zegoen telefonoa, poltsatxoaren barruan, eta bazebilen. Norak taxi bati deitu zion, oso presazkoa zela esan eta, mutilari keinua eginda jarrai ziezaion, ibaiaren kale paralelora atera eta farola baten azpian jarri ziren, taxi-gidariak kantoia jiratu eta batera ikusteko moduan.

—Sekula ez dut halakorik ikusi —esan zuen mutilak, ukituta artean—. Azalduko dit berorrek zer egin duen, Fräulein? Neskatxoak ez zeukan pultsurik, zin egingo nuke eskua Biblia gainean jarrita.

«Baina zer berbakera bitxia tipo honena!», pentsatu zuen Norak erantzun aurretik:

—Edozein soroslek egingo lukeena egin diot: arnasketa artifiziala eta masaje arnaskardiakoa. Normalena. Beno, zortea ere izan dugu, noski. Tira, zatoz nire etxera. Aldatzen ez bagara, pulmonia harrapatuko dugu.

Norak taxiaren atea zabaldu zuen eta barrura bultza egin zion mutilari. Segituan hasi zen gidariari azaltzen zergatik zeuden bustita —gizonak autotik botako zituen, bestela— eta, purrustaka izan bazen ere, esandako helbidera eraman zituen.

Ibiltarte laburrean, mutilak, isilik, denari so egiten zion, izua begietan, gorputza dardarizoka. Hotzez baino gehiago, Norak bazuen irudipena mutilak urduritasunez egiten zuela dar-dar, edo beldurrez, eta oso arraroa eta misteriotsua egiten zitzaion hori. Zergatik beldurra orain, dena pasatutakoan? *Shocka* ote zen?

Mutilak betertzetik begiraten zion, zer pentsatu jakiteke, non zegoen jakiteke, gero eta larriago. Erdi-guneko kaleketako batean jaitsi ziren, eskaileta piko bat igo zuten hirugarren solairuraino, neskak atea ireki zuten, eta bat-batean argiz bete zen dena.

Sabaitik zintzilik, lanpara bat zegoen, berak inoiz ikusi gabeko estilo batekoa: ez zeukan ezugarrik, ez kerik, eta begietan ia min emateraino zabaltzen zuen argia. Eta etxea epel zegoen, egun osoan sua piztuta izan balute bezala.

Neskak zapatak erantzi zituen. Gero, ate bat zabaldu zuen eta ur-hotsa aditu zen. Hura guztia erabat arraroa zen.

Ametsa! Bai horixe! Amets ezin arraragoa zen hura, eta laster esnatuko zen. Ametsa izan behar zuen, dena gertatzen ari baitzen bere hirian, bera ikasten zebilen hirian, nahiz eta ezer ez izan bizitza errealean legez.

—Tori, lehortu pixka bat —esan zion neskak, oihal urdin bat luzatuta—. Ziztuan dutxatuko naiz, eta gero zeu.

Mutila ilea igurzten hasi zen inguruan zeukanari begira: arropak horman jositako eskitokietan, zapata bitxi mordoa..., emakumezkoenak, tamainaren arabera; eta beste oinetako pare bat, gizona zkoenak-edo lurrean part botata; liburu pila bazter batean. Etxe hartan ema-

kumeak soilik bizi ote ziren? Eta orduan, gizonezkoaren zapatak? Eta zelan ausartzen zen neska hura ezezagun bat etxera eramaten? Zer froga hobea, egoeraren zentzu eza baino, dena ametsa zela konturatzeko? Baina ametsetan berak inoiz ez zuen halako bizitasunez sentitzen ez arropa bustia, ez hotza, ez nekea, ezta une hartan sumatzen ari zen gosea ere.

—Prest! Emakumeak bainugelak astunak garelakoan! Bide batez..., Nora naiz. Orain zeure txanda. Zer duzu nahiago, dutxa ala bainuontzia? —Neskak bainu-bata zuria zeukan soinean, eta turbante arrosa moduko bat ile bustia batzen. Ez zion begiratu nahi, baina hankak agerian zituen belauetaraino, baina horrek, antza, ez zion lotsarik ematen—. Ea ba, dutxa! —esan zuen, mutilak erantzun ez zuelako—. Ur gutxiago behar da eta berdin berotzen du. Bitartean, kakaoa ipiniko dut. Gogorik bai? Baliteke tarta pusketaren bat ere egotea.

Mutilak baiezkoa egin zion zer galdetzen ari zitzaion ulertu gabe, eta inoiz ikusitako bainugelarik txikienean sartu zen. Gauza ezezagunez hornituta zegoen. Bainuontziaren biraderak probatu zituen, ikertzeko, eta bet-betan ur beroa jausi zitzaion gainera. Presaka erantzi zen, ateari behin eta berriz begiraturata —ez zuen barrutik itxi, ez zuelako morroilorik topatu—, eta berotzen utzi zion asmakari zoragarri hari, ur-emari bero amaigabeari.

Geroxeago, takada bizkorrak jo zituzten eta atea ireki egin zen. Mutilak kanila itxi eta eskuekin babestu zuen bere biluztasuna, lotsagorrituta. Sekula ez zuen espero izango halako lotsagabekeriarik gizarte-maila oneko neska batengandik.

—Barka, ahaztu egin zait xukadera eta bainu-bata ateratzea. Sentitzen dut hain kolorin-kolorina izatea —esan zion, mutilari gehiegi ez begiratzeko ahalegina eginda—. Hemen dauzkazu. —Zapitzar bat luzatzen ari zitzaion, horia beste hau, baita kolore askotako txabusina bat ere—. Bizarra kendu nahi baduzu, hor utzi dizut aitzur berria, erabili eta botatzekoa. Neure gelan itxarongo dizut. Pasilloaren muturrean. Eta bizkor ibili, edo hoztu egingo da kakaoa.

Bainugela lurrunez beterik zegoen, ispilua lausotuta. Mutila azkar lehortu zen eta txabusina zatarra jantzi zuen pasillora irten aurretik. Atea zabalik zegoen, eta Nora zain miradorean. Mahaian bi txokolate katilu, ketan, eta intxaur-tarta zati galanta.

Neskaren keinu bati obedituz, mutila eseri egin zen eta bere buruari eutsi zion otsoaren pare pastel gainera ez oldartzeko. Adurretan zegoen, egunetan jan izan ez balu legez.

—Ea ba, hartu —eskaini zion neskak. Turbantea kenduta, ile-adats gaztaintara samurki kizkurtzen ari zitzaion. Txabusina zuria zeukan soinean, besterik ez. Begi distiratsu jakingurazkoak zituen, garagarδοaren kolorekoak—. Beno, ba esan dizut Nora naizela. Nor zara zu?

«Galdera sakona —pentsatu zuen mutilak—. Bai horixe. Nor naiz ni?».

—Harrigarria begitanduko zaio berorri, Fraüleien Nora —esan zuen azkenik, listua pare bat bider irentsi eta gero—. Ez naiz gogoratzen.

Neskak ez zirudien oso harrituta. Mutilarengana makurtu eta galdetu zion:

—Ibaikotik edo lehenagotik?

Makurtzean, zilarrezko zintzilikario bat geratu zitzaion bistan, dantza tentagarrian eskotean: hontza, Minervaren sinboloa, jakituriaren jainkosarena; baita neskak jakin ezin zezakeen beste kontu sakon eta sekretu baten sinboloa ere. Ala bai, ba ote zekien? Nor zen neska hura? Noren alaba edo arreba?

Galdera bitxia neskarena. Interesgarria. Zientifikoa. Hontzari berriz begiratu eta egia esatea erabaki zuen.

—Lehenagotik. Ibaikoa jazo baino lehentxoago, jaustear dagoen etxe batean esnatu naiz, hantxe inguruan, memoria barik, ez neuri buruz, ez neure iraganari buruz.

—Badakizu, behintzat, non gauden?

Sendo esan zuen baietz, erantzuna burmuinak eman ziolako minutu batzuk lehenago.

—Ingolstadt.

—Ondo! Ea, lehenago jan apur bat. Barkatu, nire jakingura pairagaitza da...

Mutilak tarta zati bat zerbitzatu zion Norari, berarentzat hartu baino lehen. Jarraian, egonezinari eutsita, zatitxo bat ebaki zuen sardexkaren ertzarekin. Gozoago ezin. Neskak egindakoa bazen, etxerako modukoa zen, bai gero: polita, ausarta eta esku onekoa sukaldean.

—Gogoratzen al zara nora zindoazen neskatxoaren amona garrasika entzun duzunean?

—Inora ere ez. Etxe hartatik atera gura nuen eta non nenbilen jakin.

—Zer da hori? —Nora ikaratu egin zen bat-batean. Adi-adi zegokion begira bainu-bataren hegalek agerian utzitako paparrari.

Mutilak ere seinalatutako tokira begiratu eta, pentsatu gabe, bataren hegalak zabaldu zituen neskari halako zirrara zerk eragiten zion ikustearren. Bihotzaren parean eta beste hiru tokitan, hainbat josturatzar ageri ziren, papar zuri eta bizargabeen listari beltzez zist-zast jositako zauri sakonak.

Hatz-mamiak pasatu zituen zaurietatik. Orbaintzeke zeuden, baina egin berriak ere ez ziruditen. Ez zuen ezer sentitzen. Kartoizkoak ziruditen. Zilbor aldean zeukana ukitzean, ohartu zen beherago ere bazeukala beste bat, iztondoan.

Begirada altxatu zuen neskarenganantz, jakinik gorputz biluzia hala erakustea zeharo desitxurosoa zela, baina ikusten eta ukitzen ari zena benetakoa zela berresteko gisan.

Nora zutitu egin zen, hurbildu, eta «utziko didazu?» zurrumurruka esanda, josturatzarren gainetik pasatu zituen hatzak. Mutilak hotzikara izan zuen. Amaren heriotzatik, hamar urte zituela, ez zuen ezein emakumek berriz ukitu.

—Sinestezina —esan zuen neskak baxu-baxu—. Min ematen al dizu?

Mutilak ezezkoa egin zuen buruarekin.

—Ametsetan nago, ezta?

—Ez. Biok amets berean ez bagaude, behintzat. Hau errealtate normala da.

—Nirea ez. Hemen dena da arraroa: lanparak, bainu-gela, honaino ekarri gaituen ibilgailua, ibaiko andrearen eta neskatoaren janzkera... Ametsa izan behar du.

Nora gelatik atera zen. Handik minutu pare batera, arropa batzuk zekartzala itzuli zen.

—Tori, jantzi hauek. Tobyrenak dira eta ez dakit no-la geratuko zaizkizun, baina Heikeren bainu-batarekin eta paparra minik ematen ez dizuten zauri gaizkijosiz beterik ikustea baino hobea izango da.

—Nor da Toby? Berorren neba?

—Utziko al diozu berorika hitz egiteari? Urduri jartzen nauzu. Toby nire pisukidea da. Heike, Toby eta hirurok bizi gara hemen. Haiek Filologian dabilta, eta ni Medikuntzan.

—Medikuntzan! Neu legez —esan zuen mutilak bat-batean, irribarrez—. Oraintxe gogoratu naiz! Ingolstadtan estudiantzen nabil, unibertsitaterik onena delako Kimika eta Medikuntza arloetan.

—Orain ez dauka lehenagoko ospea. Landshutera aldatu zuten fakultatea, orain dela mende pare bat, eta gero Munichera. Urtebete da hemen berrireki dutela. Nik Vienara joan nahi nuen, baina ez zegoen tokirik. Datorren urtean, lekualdaketa lortzen saiatuko naiz eta, beharbada, Austriara itzuli ahal izango naiz.

—Ni ere austriarra naiz. Salzburgokoa. —Zoragarria iruditzen zitzaion gogoratzen hastea, baina ezin zion neskari entzun ahala burura zetorkion guztia galdetu, lehenik memoria osoa berreskuratuta behar zuen eta.

Galdetu izan baliote, pixka bat lehenago ezingo zuen esan nongoa zen. Hitz egin bitartean, neskari bizkarra emanda jantzi zen mutila, eta, amaitutakoan, jiratu egin zen oniritzi bila.

Nora adi geratu zitzaion. Arropak neurrikoak ziren ia-ia, eta ondo ematen zioten, baina beste arrokekin errealagoa gertatzen zen; Tobyren prendekin, ordea, mozorrotuta zegoela ematen zuen.

—Hara, gogoratu duzu beste zer bait. Egingo dugu proba izenarekin? Ea. Begiratu. Ni Nora naiz... eta zu? Badakizu...: ni Tarzan, zu Jane...

—Zer?

Mutilaren begiradan ezintasuna ikusita, Norak ez zuen gehiago estutu nahi izan:

—Ezer ez. Berriz saiatuko gara. Ni, Nora. Zu...

Tinko begiratu zion begietara. Gris-berdexkak, urratuak, argiak, pittin bat zeharrak, masailezur altuen gainean. Luze samar zeukan ilea, horail iluna. Bizarra kendu gabe.

—Ni, Nora. Zu...

—Maximilian —esan zuen kolpean—. Uste dut —irribarre herabetia egin, eta bi zulo txo eratu zitzaizkion masailetan.

—Bagoaz aurrera. Urte askotarako, Max. —Norak eskua luzatu zion, estutzeko, baina mutilak kontuz jiratu zion, makurtu egin zen eta pa eman zion, ia-ia ezpaine kin ukitu gabe, naturaltasunez—. Eta orain, goazen sukaldera —erantsi zuen azkar, aztoramendua disimulatzeko—, ea hozkailuan zer dagoen ganorazko afaria egiteko. Goseak amorratuta nago, eta uste dut kakaoa eta tarta zatitxo hori ez direla izan aperitiboa baino. Gustatzen al zaizu pasta?

Maximilianek jarraitu egin zion, lepoari eragin eta gero. Inork ez zion deitzen Max, gurasoek izan ezik; beste guztientzat Maximilian zen. Baina gustatzen zitzaion neskak hala deitzea. Lastima hura guztia amets bat baino ez izatea! Neska hark bazeukan bera oso aspalditik bila zebilen zer edo zer.

* * *

Nora sukaldeko trasteen artean zebilen bitartean, mutila bainugelara itzuli zen neskaren aholkuari kasu eginda, bizarra kentzera. Nahikotxo kostatu zitzaion asmakari haren funtzionamendua ulertzea eta denbora guztian aritu zen pentsatzen zein bitxia iruditzen zitzaion gizonetzko bat bi neskarekin bizitzea, senitartekoak izan gabe. Zer pertsona modu ote ziren? Zer jende klase ote ziren haien gurasoak, hori onartzeko? Eta Nora Medikuntza ikasten ibiltzea? Ez zitzaion argitasunik falta, hori gero eta garbiago zegoen, baina emakumezkoa zen eta, horrenbestez, sekula ez zuten onartuko unibertsitatean. Gauza gehiago galdetu beharko zizkion, baina, zoritxarrez, bere gogoia lanpeturik zegoen, bai gogoratzen eta bai gorputzeko orbain arrotz haien nondik norakoa aztertzen.

Ispluan arakatu zituen, txundituta. Zauriak azalekoak izan balira ere, eta ez ziren, haietako bi nahiaez ziren hilgarriak. Eta hor bi bide irekitzen zitzaizkion bere gogoetari: alde batetik, nork egin zion triskantza hori?; bestetik, zelan zen posible bizirik iraun izana eta nork josi zizkion zauriak?

Oroituko balitz... oroituko erasotzailea, eta erasoaren arrazoia. Neska bitxi haren laguntzarekin, uanean gogoratzen zuen bakarra zera zen: Max zuela izena, Salzburgokoa zela eta Medikuntza ikasten zebilela Ingolstadtan.

Zer esan nahi izan ote zuen Norak aipatu zuenean Ingolstadtetako jadanik ez zela unibertsitaterik onena, lekualdatu egin zutela? Max eskoletara joan ohi zen

ia ordura arte, seguru zegoen. Han ez zuen inork ezer lekualdatu. Eta gainera, «orain dela mende pare bat»? Hala esan zuen neskak.

Metalezko barra bero batzuen gainean ipini zuen arropa bustia, bizarra moztu zuen eta, bere burua zibilizatu antzean topatu zuenean, sukaldera itzuli zen. Usain liluragarria zetorren bertatik. Bitarte hartan, neska ere jantzi egin zen, eta haren janzerak harri eta ma utzi zuen mutila atean: galtza beltzak, oso-oso estuak —irudimenari ezer uzten ez ziotenak —, eta, goitik prenda solte bat, azpikoa ondo samar ikusten uzten zuena, *brassière* frantsesen antzeko pieza arin bat, mutilari ezultxo eragin eta begirada aldenarazi ziona.

Norak mahaian ipini zuen afaria, eta botila bat ardo beltz luzatu zion Maxi kortxoa kentzeko. Señorita bat ardo edanean! Komentariarik egin barik zabaldu zuen botila, eta bi kopa bete zituen, neskak ezetz esango zuelakoan, ardoa mutilarentzat zela-eta, baina ez, irribarre egin, kopari heldu eta altxatu egin zuen topa egiteko.

—Topa guri! Gugatik eta salbatu dugun txikitxoagatik! Eta laster memoria osorik berreskura dezazun. Baliteke trauma bat izatea, zaurien ondorioz sufritzen ari zarena. Gogoratzen zara zer gertatu zitzaizun?

Mutilak ezezkoa egin eta trago luzea jo zion ardoari. Bikaina. Jatekoa, ordea, arraroago ezin. Usain ederra zeukan, baina gauza ezezagunez beterik zegoen platera: zizare antzeko tira luze zuri meharrak, saltsa gorri-gorri batean igerian, eta saltsan pinporta ilunak zatituta, eta beste zizaretxo arrosaxka batzuk, kitinazko buztan zatitxoia zutenak. Ezagutu zuen bakarra, erromero adartxo bat eta albakaz eginiko xehekoa katilu batean.

—Jan dezagun hoztu baino lehen. Ez diezu alergiarik izango ganbatxoei, espero. Atzo erosi nituen eta ez dira asko, baina nahiko ondo daude.

Lehenbiziko mokaduak kalanbrea eman zion Maxi ahoan. Inoiz zapore hori dastatu gabe, hain sendoa, ia-ia gehiegizkoa zen, baina hari zuri luzeek (dudarik gabe irinez eta arrautzaz eginak) neutralizatu egiten zuten pixka bat. Max laster ohitu zen eta bi platerkada jan zituen.

—Beno —esan zuen neskak irribarrez, gogobeterik, emakume guztiek bezala gizonezkoek sukalde-lanak estimatzen dizkietenean—, ba dastatu duzu nire plater ospetsua: espagetiak tomate, oliba eta ganbekin. Ondo?

—Zoragarri.

—Orain zure zauriak aztertuko ditugu. Utziko al didazu ikusten? Azken batean, biok izango gara medikuak.

Maxek listua irentsi zuen. Mahaitik urrundu zen eta, goiko arropa, ez botoirik ez lotzeko ezer ez zeukana, kentzekotan zegoela, atzera egin zuen.

—Ez, Fräulein, sentitzen dut. Uste dut lehenik eta behin neure kontura argitu behar dudala auzi hau, eta akaso kideren bati kontsulta egin.

Nora begira geratu zitzaion, haserre lehenengo, ezer adierazi gabe gero.

—Ados, nahi duzuna. Orduan, hobe lotara joatea. Oso egun luzea izan da.

Max aho zabalik geratu zen. Ez zen egongo zeharka adierazten...? Ez. Ezin izan. Nora ez zegoen irribarreka. Ez zion begiratzen kantoi ilunetan emakume klase batek gizonezkoei begiratzen dien modu horretan. Oso

arraroa zen dena, baina seguru zegoen Nora neska jasekoa zela. Ezin zitzaion egon zera proposatzen... Neskaren hitzek moztu zituzten Maxen pentsamendu zoroak:

—Tobyren ohea erabil dezakezu. Etxera joan da, karnabal-asteburua pasatzera. Heike ere bai. Ez zaio inportako. Oraintxe ekarriko dizut manta bat. Bihar jaieguna da. Beranduago jaikiko gara eta hizketan jarraituko dugu. Gabon.

* * *

Maximilian segituan lokartu zen nonbait, ezen bostetako kanpaiekin iratzarri zenean, atsedenduta sentitu zen, eta burua erne. Etxea ilun eta isilik zegoen.

Nagiak atera zituen, bere bizitzan inoiz probatutako oherik erosoenean. Temperatura bikaina zen, eta tentazioa izan zuen buelta hartu eta amets zoragarri haren barruan jarraitzeko: zortea lagun, esnatzean, Nora ikusiko zuen berriz. Hala ere, zerk edo zerk esaten zion misterioa argitu nahi bazuen etxe zaharrera bueltatu behar zuela, bere buruaren memoriaz gabeturik esnatu zen tokira. Eta bakarrik egin behar zuela hori. Ezin zuen arriskuan ipini izaki xarmant hura. Elkartuko ziren aurrerago, bere buruaren jabetza bereganatutakoan.

Isilka-misilka jaiki, eta Tobyren arropak eta bereak ordeztu zituen, hotzikaraka. Zein arinak ziren bestearenak konparazioan! Gauean elur apur bat egin zuela ikusita, erabaki zuen prendaren bat maileguan hartzea. Ez sinesteko moduko txamarra bero arin bat jantzi eta, ohar bat zirriborratu eta gero, irten egin zen zaratarik

egin barik, Nora ez esnatzearren. Fakultaterantz abiatu zen: bazegoela segurtatu beharra zeukan, etxearen hondarrak miatzera itzuli baino lehen.

* * *

Norak begiak ireki zituen atearen danbadatxoa entzun zuenerako. Gutxi eta gaizki lo eginda, seguru zegoen Max isilpean alde egiten saiatuko zela, eta bete-betean asmatu zuen. Hala ere, ez zegoen prest hirian noraezean goizaldean ibiltzen uzteko halako trauma edukita: edozer gerta zekioken.

«Ez engainatu zeure burua, Nora. Gertatzen dena da mutila gustatu egiten zaizula eta ez duzula galdu nahi. Orain arrastoa galtzen badiozu, ez duzu izango topatzeko modurik», esaten zion bere barneko ahotsak. «Bale. Ados. Gustatu egiten zait mutila. Eta zer?».

«Ezer ez. Zoaz atzetik. Gaur egun, emakumeok ez dugu zain egon behar gizonezkoek lehen urratsa egin dezaten. Joan bizkor, kaleetan barrena galdu orduko!».

Ziztu bizian jantzi zen. Ohar bat ikusi zuen mahaian, eta poltsikoan sartu zuen. Leihotik begiratu, eta han zen mutila Kanalgasse aldera jirutzen. Nora korrika egiteko zapatilekin atera zen etxetik, eta segituan harrapatu zuen, Max ohartu gabe.

Norak sumatu bezala, unibertitate zaharreko erai-kin baten aurrean gelditu zen. Orain, Medikuntzaren eta Antzinako Anatomicaren Museoa zen, baina, hamabosgarren mendetik, Medikuntza ikasteko eta antzoki anatomikoan gorpuen disezioak egiteko tokia izana zen.

Hantxe geldi ikusi zuen, buruari eragiten, sarrera modernoan jarritako plaka behin eta berriz irakurtzen, pauso batzuk atzera egiten, lepoa atzeraka, eraikina osorik ikusteko, eskuekin pantaila egiten museoaren beiratetik kuxkuxeatzeko. Argiak, ordu horretan, itzalita zeuden, logikoa zenez. Mutila hantxe zegoen, eraikina ezagutuko ez balu bezala, begi-bistan zeukana sinetsi ezinik bezala.

Gauean sortutako pentsamendu bat hazten zihoan Noraren baitan. Ezinezkoa zen, ergelkeria hutsa zen eta, hala ere, horrek argituko luke Maxen gauza bakan pila hura: antzinako arrokekin ibiltzeko erosotasuna, berorika hitz egiteko eta Fräulein deitzeko mania, gauza oinarrizkoenak ez ezagutzea, hala nola taxiak, lanparak eta tomateak.

Eta denboran zehar etorritako bidaiari bat balitz? Iraganetik etorria?

Norak burua astindu zuen Max berriz oinez hasi zenean, ibairaintz oraingoan, bezperan aipatutako etxe zaharrerantz.

Ez zen posible. Gainera, denboran zeharreko bidaiaria izatekotan, entrenatuago egon beharko zuen: jakingo zuen zer ziren espagetiak eta ez zion halako alarmarekin begiratuko *leggingak* jantzita ikusteagatik.

Ibai ondoan paseatzaile bakarti bat zebilen txakurrarekin. Max atari batean ezkutatu zen, gizona urrundu arte. Nora ere zain.

Geroxeago, Maxek antzinako etxe baterantz jo zuen. Izan, etxe-hondarrak ziren, jardintxo baten erdian, hori ere guztiz zabaturik. Jardina zeharkatu, etxearen atzeko partetik sartu eta desagertu egin zen.

Norak ezpainak milikatu zituen, ezbaian. Jarraitu egin behar zion eta zertan ari zen edo non sartzen zen ikusi? Bai. Ez zegoen beste aukerarik. Orain galduz gero, ez zuen berriz aurkituko. Isil-gordeka jarraitu zion.

Sukaldea edo garbitegia izandakoa zirudien eta korridore ilun batera jotzen zuen gela batetik pasatu zen. Maxen pausoek, artatsu, krak egiten zuten eskaileran. Nora ere igotzen bazen, Max nahitaez ohartuko zen, baina behean geratuta, ez zuen jakingo zertan ziharduen mutilak eta ez zuen zentzurik izango haraino joan izanak.

Zer egin erabaki orduko, jaisten sentitu eta juxtu-juxtu egin zuen atzera, sukalderantz. Gero, kuku egin, eta kanpotik sartzen ari zen lehen argi-txintaren erdian ikusi zuen mutila, eskaileraren behealdean zegoen zerbaiti begira-begira. Norak, zegoen tokitik, ezin zuen ikusi zer zen.

Ate baten kirrinka aditu zuen, irekitzen. Gero, oihi itoa, oin-hotsa eta, azkenik, isiltasuna.

Seguru egon zenean beste ezer gertatuko ez zela, Nora korridorera irtetera ausartu zen. Eguzki jaioberriak gorritasun indartsuz argitzen zuen korridorea. Max egondako tokira joan eta hantxe jarri zen, toki berean, ernai. Han, eskailerapean, ez zegoen ezer, soilik horma-arasa bat, atea maratila herdoildu batez itxita zeukana.

Norak ate haren zarata entzun berri zuen. Maxek barruan egon behar zuen.

Barruan? Eskailerapeko horman eginiko arasa baten barruan? Zertarako? Eta... zergatik ez zen irteten?

Bi pauso egin zituen aterantz, geldo, nekez, eskuin eskua luzatuta, maratilak zafraldi elektrikoa emateko beldurrez bezala.

Andre Maria Ederraren kanpaiek erdia jo zuten. Bost eta erdiak.

Maratila ukitu zuen, ezer berezirik sentitu gabe, hotza izan ezik. Indar egin, eta atea barruratz ireki zen, beldurrezko filmetako karranka eginez. Norak espero zuen zulo iluna zen hura. Trasteleku bat. Ezin zen beste ezer izan.

Eta hala ere...

Barrualdetik aire-firrinta hotza zetorren. Norak pauso bat egin zuen aurrera. Eta beste bat. Argitasuna bereizi zuen, urrun, tunel baten bihurgunean irteera ikusi ez arren beste aldeko argia sumatzen denean legez. Beste bi pauso.

Arasa bat izateko, toki hura itzel handia zen. Eta Max ez zegoen han. Isiltasuna erabatekoa zen. Mutila ilunpean egonez gero, haren arnasa entzungo zuen, edo behinik behin igarriko zuen hantxe zegoela, gorputzaren berotasuna edo. Baina han ez zegoen inor.

Aurrera segitu zuen.

Urdaila beldurrez kuzkurtuta zeukan, baina handiegia zen jakin-mina. Sentitzen zuenari jaramonik egin ez, eta aurrera egin zuen berriz. Trastelekua non amaitzen zen ikusi beharra zeukan, gibelaldean sumatzen zen argia zer zen jakin.

Beste hiru pauso, bihurgunea eskuinetara eta han, muturrean, hurbil-hurbil, kaleko argia. Zer kaletakoa? Lehor zeukan ahoa.

Kontuz-kontuz, leiho burdinsaredun batera iritsi zen. Beste aldean kale bat zegoen, bai. Baina han ez zen ageri —Nora zegoen lekutik ikusita behintzat—, ez farolarik, ez paperontzirik, ez autorik, ez besterik, kale

hura hogeita batgarren mendeko Ingolstadteko kale bat zenik adierazten zuen ezer ere ez.

Geldi geratu zen bertan, turdituta, baten bat handik noiz pasatuko bere teoria konprobatzearren, baina hain goiz izanda, puska eder batean itxaron beharko zuen, hala uste zuen.

Oker zegoen.

Laster samar, gizonezko bat pasatu zen aurretik, galtzada-harrietan kla-kla eginez takoiekin. Karnabaletarako moduan jantzita zegoen: galtza zuriak, kasaka nabarra eta kapela hiruadarrekoa. Haren atzetik, antzera jantzitako gaztetxo bat, zurezko kaxa handi bat zekarrela, Norak imajinatu ezin zezakeen lanbideren bateko tresnaz betea seguruenik.

Leihotik aldendu zen, ikaratuta. Ez zuen nahi inork zelatan ikusterik. Baina apartatzekotan zegoela, txilinhots zoli batek eman zion atentzioa. Akolito bat zetorren, makila luze batean jositako urre koloreko gurutze bati eusten, abadeari bidea zabaltzen. Abadeak, eskuak paparrean, kaxatxo bat zeraman, txit preziatua nonbait. Beste akolito bat atzetik. Zalu zihoazen hirurok. Larritasuna abadearen aurpegian.

Norak ikusita zeukan pinturaren bat museoren batean.

Noski! Oliadura santua! Norak birramonaren istorioak zituen gogoan, nola esaten zion, adibidez, txikitako herrian beti entzuten zutela txilina apaiza azken igurtzia ematera joaten zenean hilzorian zeudenei. Itxuraz, halako gauzak guztiz normalak ziren garai baten atean zegoen Nora.

«Ez zen, bada, Max izango hilzorian zegoena, ezta?», bururatu zitzaion, ikaratuta.

«Ez. Nola izango zen Max? Hamar minutu lehenago gari gaineko txoria bezain sano zegoen eta».

Ingolstadt ezezagun hartan barrena ibiltzeko tentazioa hain indartsua izan zen, Norak bere zuhurtzia osoari heldu behar izan zion ezkutalekutik ez irteteko. Nola irten hala jantzita? Zorotzat hartuko zuten, eta giltzapetu. Gutxienez, etxera bueltatu, bezperako mo-zorroa ipini eta garairako onargarria zen eran jantzita itzuli beharko zuen. Ez zen piura ideala izango, baina ez zen nabarmenduko bederen. Eta susmatzen zuen Max non topatu.

Esan baitzuen kideren bati egingo ziola kontsulta.

Fakultatera joango zen zuzen-zuzen, horixe zen seguruen.